Pamiela etxea
kalandraka
amets egiteko liburuak®

# Baga biga higa

Album irudidunentzako XVII. Compostela Saria

Azaroaren 8an eskuragai




+3

Testua eta irudiak: **Maria Girón**

Itzulpena: Jon Martin-Etxebeste

Saila: Compostela Saria

Gaiak: Adiskidetasuna, jolasa, umorea, hondartza, haurtzaroa, itsasoa eta uda. Aniztasuna. Hitz jokoak eta joko fonikoak. Poesia fonetikoa. Metaketa. Esperimentazioa. Onomatopeiak. Abangoardia.

IBIC: YBC (Album irudidunak)

Kartoizko azala | 28 x 20 cm | 40 or.

Salneurria: 17,00 €

ISBN: 978-84-9172-399-8

ESKURAGAI: Gaztelania | Galegoa | Katalana | Euskara | Portugesa | Italiera

ISBN 978-84-9172-399-8
9 788491 723998

**Liburu honek txango dibertigarri bat kontatzen du, errimaz eta erritmoz.**

XVII. Nazioarteko Compostela Saria jaso zuen jatorrizko lanak. Maria Girónek idatzi eta ilustratu zuen. Jon Martinek itzuli du euskarara eta horretarako ahozkotasunaren lanabesak maisutasunez zorroztu ditu. Kanta tradizional bat hartu, muturreraino errimatu, eta edonoren gozagai bihurtu du.

Jolasten hasteko lagunen bila, tinbrerik tinbre, ibiltzen gineneko garaiarekin bat egingo dugu helduek. Haurrek, berriz, errepikapenaren eta ezustearen plazeraz gozatuko dute. Album ilustratu freskoa da honakoa, adiskidetasunaren eta zoriontasunaren gorazarrea. Modu harmonikoan uztarturik daude jolasa, askatasuna, mugimendua eta umorea.

Kontakizunak orden eta erritmo bizi-bizia du. Plastikoki, marra libreko irudiak nabarmentzen dira, espazioarekin eta koloreekin jolasten direnak.

## Maria Girón

Maria Girónek Arte Ederrak ikasi zituen Bartzelonako Unibertsitatean, eta Bolonian eta Sevillan osatu zuen bere formazioa. Bartzelonara bueltatu zelarik, Llotja Eskolan ilustrazioan egin zuen espezialitatea. Liburu ugari ilustratu ditu eta hizkuntza askotara itzuli izan dira. 2010 urtean Boloniako Haur eta Gazte Liburu Azokak bera aukeratu zuen Gianni Rodariri buruzko erakusketa kolektiboan parte hartzeko. 2017 urtean azoka horretan bertan berriro ere hartu zuen parte Kataluniako kulturaren kariaz egin zen erakusketan.

http://www.mariagiron.com

## Egilearen beste liburu batzuk:




14,00 €

ISBN: 978-84-9172-382-0
9 788491 723820




16,00 €

ISBN: 978-84-9172-354-7
9 788491 723547




16,00 €

ISBN: 978-84-9172-187-1
9 788491 721871




16,00 €

ISBN: 978-84-9172-284-7
9 788491 722847

Pamiela etxea

kalandraka

amets egiteko liburuak®

# Baga biga higa

## Album irudidunentzako XVII. Compostela Saria



BAGA BIGA HIGA

Hondartzara abiatu dira Baga, Biga eta Higa.

Halako batean,
gelditu eta kox-kox, jo zuten atean.
LAAAGAAA!
egin zuten oihu denen artean.



Leihora atera zen Laga.
—Nora zoazte Higa, Biga eta Baga?
—Asmatu, bada…
—Igerilekura beharbada…?
—Ez, hondartzara.
Etorri nahi al zenuke gurekin?

Eta haiekin abiatu zen Laga.

